

Aretxabaleta,
1992ko apirilak 23

Aretxagazeta

21 urte umeekin
futbolean

• **Elkarrizketa:**
J.L. Txintxurreta

• **Taldeetatik:**
Peña Marino

• **Otala zelaiko**
krossa, inadartu



Artikulo txo bat idazteko eskatu zidaten Aretxagazeta berrituaren sail berri honetarako, berandu bada ere bidaliko niola

" Gero eta premia handiagoa dugu lankidetzan aritzeko eta horrela, ingurukoak erakartzeko."

"Elkarlanean normalizazioruntz"

agindu nion. Aretxagazeta-rakozelako aurretik eta, horrezaz gainera, eskean zetorkidana ezaguna dudalako, batetik, eta proiektu berri honen bultzatzaile ondoren. Ez dut hau norberaren umiltasuna agertu nahian esaten, baizik eta irakurleari -azkeneraino iraungo duen irakurlerik bada- azaltzearren, ez naizela neure kabuz plazara agertu.

Esanak esan, goazen harira. Ez dago zalantzarik; makina bat arazo izaten direla horrelako aldizkari bat sortzeko orduan, baita iraunerazteko ere. Baina

honelako proiektuetan, bakarrik ez gabiltzala jakiteak ere indarra eman behar digu. Hala ere proiektugintza honetan lehentasuna ematen diot parte hartzaile kopuru esanguratsu batekin egiteari, eta beti izango da errezagoa lan txikiak askoren artean banatzea; lan handiak gutxi batzuk egitea baino.

Prentsa lokalarekin, besteak beste, zeregin garrantzitsu bat daukagu euskeraren erabilpena areagotzeko alderditik begiratuta ere, eta arlo honetan gauza bat dago argi elkarlanerako bideari ekin

behar diogula, eta zentzu honetan ere, bizi garen ingurunean elkarlanaren emaitza onak hainbat eremutan jaso direla edonork ikus dezakeen zerbait da: lan alorrean, irakaskuntzan, elkarte mailan... batzuk aipatzearren.

Gero eta premia handiagoa dugu lankidetzan aritzeko eta horrela gauzatutako gure lanarekin ingurukoak erakartzeko, inoiz ez dauden baino urrunago uxatzeko.

Nati Abasolo.
Arrasateko Udala
Euskaltegiaren
zuzendaria.

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Agurtzane Elkoro, **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinka Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zer daukazu esateko?



Luis Mari Fernandez
(Ikaslea)

Nire ustez Atxabaltan kontzertu gehiago egon beharko lirateke. Eta gazteei laguntza gehiago ematea ere ez litzateke txarto egongo.



Arkaitz Berasaluze
(Ikaslea)

Txarto iruditzen zait Atxabaltan pizkina kanpoan ez eukitea eta parkerik ez egotea.

Laster tenis zelaiak ipini behar dituztela enteratu naiz, eta ideia ona iruditzen zait.



Itziar Arza
(Etxekoandrea)

Durana kalean koteak oso txarto egoten dira aparkatuta. Askotan goruntz joan gura baduzu, kaminora urten behar duzu edo bestela kotxeren bat traban egoten da.



Jasone Gorroño
(langilea)

Atxabaltan euskal txoko baten beharra dago. Jendea elkartzeko toki bat. Euskeraz berba egiteko leku bat, bai euskaldunentzat eta baita euskaldun barrientzat ere.

KARTAK

Umiltasuna kulturatzat

ARETXAGAZETAK lñurrategi anaiei egindako elkarrizketa irakurtzen nengoela, rezibimentua aitaketan zuen puntura heldu nintzeanean beste nonbait irakurri edo entzundako zerbait etorri zitzaidan burura. A! Badakit. Gipuzkoako bertsolari txapelketan Jon Sarasuak izandako jarrera akordatu eragin zidan. Eta ni neure artean... jope! Aretxabaletako gure

"famosoi" populatutearen folklorea ez zaie bape gustatzen. Eta kontu horri bueltak ematen hasi eta ezaggarri bera daukaten beste atxabaltar famoso batzu etorri zitzaizkidan gogora: Andoni Zubizarreta, entrebistatzen duten bakoitzean bere lehen entrebista dela ematen du; edota Xabier Lazpiur eta Asier Gueñetxea, euren garaipenengatik zoriontzearan

gorritu egiten direnak.

Kanpotarrek, hau ikusita, atxabaltarrek umiltasunaren dohain dutela pentsatuko dute. Aretxabaletan ez da diferentea; baina gazteriarren artean umiltasuna errotuta dago. Aipatu ditudan gure pertsoniak ikusita gero, "harroa" izatea gatxa izango zai-gu.

Gure herrian, "famoso" barriak jaiotzean Zubi eta lñurrategitarren ja-


rraitzaileak izango dira, eta ez Buyo edo Perez de Tudelarenak.

Leukzioederra ematen dabilta gure "famatuak" eta gazteriarren artean errotzen dabilenak.

Eskerrik asko "famatuok".

J. Antxia

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.



Gure eskualdeari buruzko liburuaren aurkezpena

Apirilaren 9an, Udaletxeko pleno aretoan, Eskoriatzako Irakasle eskolak, gure eskualdeari buruzko, liburu bat aurkeztu zuen. "Deba garaiko gure eskualdea". Liburu hau Deba Garaiko Udal Elkartearen osatzen duten Udalen laguntzaz eta Mankomunitatearen babesean egin da.

Gure eskualdea aztertzen da, eta honako arlo hauek ikutzen ditu: Geografia, artea, gizarte... Material horretaz aparte arlo bakoitzaren Gida Didaktikoa bat ere atara dute, baita material

osagarriak ere (diapositibak, transparentziak,...).

Egileek uste dute: *"liburu hau eskolara begira eginda dagoela. Informazio eta baliabide guztiak, gaur-eguneko irakaskuntza erreformak behar duena betetzen du".*

Oraindik ez da kaleratu, "lehenengo mankomunitateak aztertu beharko du eta erantzutean, materialek udaletxez-udaletxe banatuko da. Eta Udala izango da eskoletara bialduko duena".

UDALETIK

Obra baimenak

Obra egiteko udal-baimenei buruz zera adierazi gura du Udalak: Etxetan edozein lan/obra egiteko udal-baimena behar dela. Baimen hau Udaletxean eskatzen da eta bertan aztertuta gero Alkatetzaren Dekretuz komunikatuko dela, hau da, idatziz eta ondo adieraziz baimen hori. Hemendik aurrera baimen barik egiten diren obra arduradunei isunak (multak) jarriko zaizkie.

Txabolak

Epe laburrean kenduko dira baimen barik hainbat lekutan eraikitako txabolak. Estetikaz kanpo, eraikuntza guztiek proiektu bat eta bera, baimendu behar da.

Jokuak 19. zonaldean

Planeamunduan 19. zonaldeko zati bat (trenbide inguruan, Kurtzebarri eskolako jolaslekutik hamabost bat metro beherantz) joku-toki bihurtuko da. Dagoeneko proiektua eginda dago eta dirua onartuta. Aurten eratuko den lan honetan hiruzpalau jarriko dira, horietako bat "skate"-rako izango da.

Zirkulazio zergak

Dagoeneko Udal bulegoetan daude aurtengo zirkulazio zergaren erreziiboak. Likidapen/ordainketan intesatuak Udaletxetik pasatu daitezke bulego ordutan. Epe laburrean gehikuntza z (errekarguz) kobratuko dira.



Basabe poligonoa
A - 15

Tfnoa: 79 34 28

**JAUREGI
OKINDEGIA**

Otalora, 10


Aretxabaleta



**Aretxabaletako
Industrialdea, S.A**

Basabe poligonoa B-0
Tfnoa: 79 62 80

Optica



Loramendi, 10
Tfnoa: 79 98 21



Aretxabaleta-Unai proiektuko karta barria

Gure herritik Indiako Unai eskualdearekin lanean dabilen Aretxabaleta-Unai proiektua aurrera doa. Indian proiektu hau koordinetan dabilen Inazio Galdos misiolari atxabaltarrak bigarren eskutitza bialdu dio Hirugarren Mundu Taldeari, lanak zelatan doazen espliketako. Kartak 6 folio ditu, detailez eta numeroz azaltzen ditu lanok.

Arroza ereiteko lurren bardinketak eta ur-potzuak egiten jarraituko dute udarte, eta gero abenduan barriri ekin. Umeen-dako eskolak ere martxan jarri dira 10 herritan. Izen

eta numeroekin xehetasun guztiak dirulaguntzaile guztiei zabalduko dizkie Hirugarren Mundu Taldeak. Urte hasierarako 1.165.617 pezeta batu ziren Aretxabaletan, eta ordutik hona gehitzea espero dute, zifrarik ez euki arren. Arrasatetik ere laguntza etorriko ei da.

Galdosek kartan jarten duenez, Adivasi etniako herri haietan Aretxabaletari buruzko esker sentimentua nabari da, oroimen bizia ere bai, hemen egon zirenen partetik.

Loramendi literatur lehiaketa

Aurreko urteotako esperientziarekin jarraituz, aurtan ere, Euskara Batzordeak Loramendi Literatur Saria antolatu du. Aurtengo Loramendi literatur Lehiaketak sail bi eukiko ditu: poesia eta ipuina.

Lehiaketan 18 urtetik gorako edonork parte hartu dezake eta pertsona berak ezingo du lan bat baino aurkeztu. Lan guztiek argitara gabeak izan beharko dute.

Poesian 100 lerro idatzi beharko dira gutxienez eta 200 gehienez. Ipuinean, berriz, 4 orrialde izango dira gutxienez idatzi beharrekoak eta 7 orrialde gehienez.

Sail bakoitzean hiru sari emango dira eta irabazleek 50.000 pezetako saria jasoko dute. Lehenengo atxabaltarrari ere sari berezia emango zaio.

Lanak, "Loramendi II. Literatur Lehiaketa" izenburuz, Udala Euskara Zerbitzura bialdu beharko dira ekainaren 19a baino lehen.

• Zaratia zinean, Apirilaren 26an, domekan, filme emanaldiak bukatu egingo dira, Urrirarte. Emango duten azkenengo filmea "Terminator 2" izango da.

• Bandaren prestakuntzak direla eta, musika tresna ikastaroak emango dira. Informazio gehiago gura baduzue, musika eskolan daukazue.

• Loramendi dantza taldeak, Otalora 27an, Ballet ikastaroak emango ditu. Apuntetako edo informazio gehiago gura baduzue, informatu zaitezte musika eskolan.




Bere Bezeroen zerbitzura

Miartre, 16
Tfnoa: 79 01 72

SAGASTA ELEKTRIZITATEA


Elektrogailuak
Elektra-instalaketak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10



DORLA, S.A

ARETXABAETA
BASABE POLIGONOA, C.O.2.3
Tfnoa eta Fax (943) 79 82 77



Banderak errepublika egunean

Herriko gazteek ez dute jakingo, baina joan zen apirilaren 14ean Errepublika eguna izan zen.

Aspaldikontua edo urrin geraketan den kontua ematen badu ere, oraindik ere egun hori

gogoratzen dutenak badaude, euren balkoietan bandera errepublikanoa ipiniz.

Argazkian ikusten denez, errepublika ez dago ahaztuta.

Aurten 16 ume jaiotzen dira

Ume gutxi jaiotzen eiz da, gero eta gutxiago. Hala eta guztiz ere, Aretxabaletan aurten 16 ume jaiotzen dira, 11 mutiko eta 5 neska, eta oraindik ere erdi baino gehiago falta da urtea bukatetako. Beraz, nahiko zifra politak direla esan daiteke.

Denon kuriositatea asetzeko eta gurasoen pozerako hona hemen orain arte gure herrian jaiotzen diren ume guztien zerrenda:

- Asel Errasti
- Xabier Otsoa

- Oier Mondragon
- Ariane Unanue
- Jon Cano
- Nerea Zubillaga
- Daniel Gonzalez
- Jon Ander Barbero
- Markel Duran
- Maiane Barrena
- Raul Fernandez
- Lide Pagaldai
- Jon Ander Galdos
- Zurine Belategi
- Andoni Galan
- Ibai Luelmo

Ratxa honek jarraituko ahal du.

Ikastaro bereziak

Deba garaiko Udalkirol zerbitzuak, 3 ikastaro antolatu ditu: Igeriketa monitoretarako, Badmintoneko monitoretarako eta kirol-urpekari ikastaroak.

Igeriketa monitorean ikastaroa maiatzaren 8tik ekainaren 14ra izango da Oñatin. Klaseak eguakotzetan 7etatik 9ak arte izango dira, baita zapatu goizetan ere. Ikastaro hau 18 urte edo gehiagokoentzat eta eskola graduatua dutenentzat da. Prezioa 34.000 pezeta izango da. Izen ematea, Apirilaren 30 baino lehen.

Badminton monitoretarako ikastaroa maiatzaren 16 eta 17an egingo da arrasaten. Zapatuetan 10etatik ordubietara eta ordubietatik 6etara. Domeketan berriz 10etatik ordubietara. Ikastaro honen prezioa 8.000 pezeta izango da.

Kirol urpeko ikastaroa Bergaran egingo da, maiatzaren 11tik 31ra. Ikastaro hau 16 urte baino gehiago dutenentzat izango da. Prezioa: 25.000 pza.

Edozein ikastarotarako izena emateko, kirol-etxean.



Ur hornikuntzak martxan

Aurreko Aretxagazetan agertu zen, hasteko zeudela Aozaratzan ur hornikuntza lanak.

Ur hornikuntza hauek hasi ziren aurreko hastean eta jadanik aurrera doaz, argazkian

ikusten den moduan.

Gaur egun Sargarai baserri ingururaino da goen ur tuberia, Aozaratzan osoara luzatuko dute obra hauekin.

Lan honetan 2 milioi pezeta gastatuko dira.



Marinoren Peña, Marinoren penaz

Hilebete honetan Marino Lejarretak euki duen zorte txarra dela eta, erretiratu egingo eiz da. Hala ere, bada Aretxabaletan talde bat oraindik erretiratu ez dena: Peña Marino.

Orain dela urte batzuk, Marinorekin zeukaten zaletasunak bultzatuta, lagun talde batek, txirrindulari jator honi peña bat egitea erabaki

zuen.

Ekintzak

Orain arte egindako ekintzak, nahiz eta gutxi izan, zaratatsuak izan dira: 1989. urtean Parisera joan ziren; gero Chambery-ra joan ziren munduko txapelketara, eta hurrengo urtean Oviedoraino heldu ziren Manzaneda herriskako

peñaokoein batera Marino animetan.

Gainera urtero joan dira Berrizera (Marinoren herria), bertan egiten dioten omenalditxora. Atxabaltan ere urtero egiten diote omenaldia, eta jende ugari biltzen da.

Urteerak

Orain arte beste ir-

teera batzuk ere prestatu dituzte. 89 eta 90ean zehar mendiko bizikletan urteera asko egin dituzte eta inguruko afizionatu karreretan ere parte hartu dute antolakuntza lanetan.

Goian aipatutako ekintzetatik aparte, beste bidaia batzuk ere saiatu dira egiten, baina autobusa ezin zuten bete eta airean utzi behar izan dituzte.

Orain zer?

Orain Lejarretari gertatu zaionaren gainean asko komentetan da batean eta bestean baina eurek, penaturik antza, ez daukate gogo handirik ezer esateko. Horregatik bertso baten agertu gura dute esatekoa:

Zornotzako karreran ezin irabazi petril txarri zikina ez zuen ikusi pasatu zitzaiona ez zuen merezi Marinorengandikan denok dugu ikasi jatorra izateko nola behar den bizi.

NOVEDADES
FELI
MODAN DAGOEN GUZTIA!
Iparragirre, 4
Tfno: 79 21 24
ARETXABALETA

RKLU
INDUSTRIA
ORNIKUNTZAK
URKULU, S.A.
Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

OYAR
Zaraya, 4
Tfnoa: 79 15 70

Autoservicio
ANGELINES
Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42

Jose Luis Txintxurreta, 22 urte luze daroa umeen futbola koordinetan. Ze neska-mutilek ez du ezauketan gizon hau? Zenbat mutiko pasatu ete dira bere eskuetatik? Guzti hori dela eta gizon honen berri eukiteko berarekin elkarrizketa txiki bat euki dugu.

• Zenbat urte umeekin futboleant?

• Ni 71n hasi nintzen. Javier San Migel zen zuzendari, eta honek sartu



"Futbol zalea izan naiz betidanik"

ninduen direktiban. Orduarte Jose Maria Andres zebilen mutikoekin eta honek utzi zuenean, inor ez zegoen eta ea nik hartuko nuen esan zidaten. Horrela hasi nintzen.

• Zergatik sartu zinen?

• Javier San Miguel direktibo barriak topetan zebilen. Hasieran ezetz esan nion, baina azkenean konbentzitu eta sartu nintzen. Ez nuen pentsetan lan hau hartuko nuenik, hasieran ekipo nagusiaren delegatu lanetan sartuko nintzela esan zidaten, baina behar hori sortuzenean, mutiko torneoak antolat-

zeko inor ez zegoen, eta ni hasiko nintzela esan nien. Hasieran nobedadea izan zen, baina poliki-poliki ohitu egin nintzen.

• Nobedadea zer, umeekin lan egitea edo futbola?

• Ni beti futbol zalea izan naiz, baina mutikoen futbola gero eta gehiago gustatuz joan zitzaidan. Eboluzio bat ikusten joaten zara. Txikitatik ikusiaz zoaz, ez da ekipo haundian ibiltzea moduan, txikitan aurrerapenak ikusten zoaz.

• Ze lan egiten duzu konkretuki?

• Koordinadore nabil. Momentu honetan bi in-

fantil eta eskolarteko kirola koordinatzen ditut. UDAk, Luis Eceizak, Almenek eta Kurtzebarrik eskolarteko kirola aurrera errotan dute, eta nik futbolzelaia koordinetan dut: arbitroak jarri, emaitzak emun, aldagelak zaindu... Gero infantil federatu biak, bakoitzak bere entrenamendua dauka eta ni hor egoten naiz, partiduaren ordua emateko, poltsetan kamisetak ipini...

• Zenbat mutikorekin zabilta?

• Guztira 100 - 105 mutiko errotan ditut. Uda berriari ekipo gehiago egin gura ditugu, Arrasatek eta Aramaiotik etorritako mutikoekin.

• Lan hori aurrera errotateko zenbat ordu sartzen dituzu?

• Orain pertsona bi gabiltza, Angel Zubiria eta biok, horrela ordu gutxiago sartzen ditut.

• Atxabaltan zure eskuetatik mutiko asko pasatu da. Zeintzuk gogoratzen dituzu modu berezian?

• Gorora beti ospetsuak etortzen zaizkizu, Zubizarreta... Nik gogokoena 77an Oñatiko finalean Seguraren kontra 2 eta 0 Gipuzkoako txapelketa irabazi genueneko daukat. Hazi zeuden: Tito Etxandia, Lopez Rekarte, Zubizarreta, Ugalde, Sanchez, Rafa Etxandia, Uribarren, Sanz, Aranbarri... Oso ekipo ona zen, Patxi Aguirrezabalak entrenatzen zituen.

• Hainbeste urtetan

Hasieran nobedadea izan zen, baina poliki-poliki ohitu egin nintzen.



ume artean ibilita, ikusten duzu umeen arteko aldaketarik?

- Aldaketa, aldaketa, ez dakit igarten dudan, ni aurrera noala, pentsetan dut, edade berdineko ume hauek ere futboleant egiten dute, egin dezakete!

Benetako aldaketa euskeramailan ikusten dut. Erdaldunek euskeraz egiten dute, euskeraz trankil egiten dute.

Baina konportamentu aldetik, mutikoak beti mutiko.

• Lan honen gauza positibo bat?

- Hau satisfazio bat da. Norberak hazitako mutikoak 3. mailan jokaketan ikustea, oso polita da.

• Eta negatiboa?

- Denbora asko kentzen dizu. Asteburuetan familiarekin nonbaitera joan behar eta ezin.

Baina bestela positiboak gehiago ditu negatiboak baino. Pozik egiten duzu, baina uste dut uzteko sasoa heltzen dabilela.

Nik meta bat daukat ipinita, nire seme gazteenari lagundu 14 urterarte eta gero bukatu.

• Eta gero ahaztu?

- Bueno ahaztu ez, ni partiduak ikustera etorriko naiz, baina heltzen da sasoi bat pentsetan duzuna, nik nahiko egin dut hemen.

• Orainarte betik mutikoekin ibili zara. Ze iruditzen zaizu nesken ekipoa?

- Bueno, niri gustetan zait. Baina ez da futbol berdina, neskak bigunago jokaketan dute. Baina nesken futbolak gauza politak ere badauzka.

Nik uste dut nesken futbolari base bat falta zaiola, behetik ekin behar

Norberak hasitako mutikoak 3. mailan jokaketan ikustea, oso polita da.

da, mutilekin moduan. Ez da samurra, behin edade batekin futboleant hastea, esperientzia hartzen duzu, baina teknikari ez diot mehoria larregi ikusten.

• Hasiko zinen mutikoekin moduan neskeen?

- Ez dakit, oso zaila ikusten dut. Ez dut uste. Nesken futbola promozionatu beharko balitz, esku bat botako nuke.

• Udako zuzendari bazina, zer aldatuko zenuke?

- Ez dakit, antolaketa mailan ez nuke ezer aldatuko, ekipoak ondo daude mailakatuta. Txikietatik hasita, preferenteraino dena ondo mailakatuta ikusten dut. Entrenadoreak ere badauzkagu.

Zerbait aldatzekotan, aldagelak eta anexoa konponduko nuke.

"Jesus" Martinez

Errioxatik Atxabaltara

- **Edadea:**
- 56 urte.
- **Non jaio zinen:**
- San Vicente de la Sonsierran.
- **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**
- 18 urterekin etorri nintzen.
- **Norekin etorri zinen?**
- Anai-arrebak hemen bizi ziren eta gero ama eta beste anaia batekin etorri nintzen. 54eko Urtarrilaren 17an goizean goiz, marianistetan jaitsi ginen autobusetik.

Gero 8 hilabetetan Portasolen bizi ginen eta 18 urte Araba Ibilbidean. Han ezkondu eta Pilarika egunean handik hona etorri ginen bizitzera. Hasieran Portasolen, Romalduen etxean bizi ginen. Oilategi itxurako etxe batean; logela bi eta sukaldea zeukan.

- **Lehenego lagunak?**
- Hasieran San Vicente de la Sonsierrako lagunak nituen. Gero Benito Otxoak sartu ninduen taxista. Orduan Zubian egiten nuen lan.
- **Etorri zinenean Zubian hasi zinen la-**



nean?

• Ez, Akilinodean hasi zegoen bakoitzean, herriara joaten ginen. Baina lagunak eginda gero, ez hain sarri. Ni Atxabaltan neure herrian moduan sentitzen nintzen. Jendea oso zabala zen.

• **Herriko zure lehenego inpresioa?**

• Herri handia iruditu zitzaidan. Nire herria oso txikia zen Atxabaltaren aldean.

• **Hasieran zer izan zen gehien kostatu zitzaizuna?**

• Hasieran, zubi bat zegoen bakoitzean, herriara joaten ginen. Baina lagunak eginda gero, ez hain sarri. Ni Atxabaltan neure herrian moduan sentitzen nintzen. Jendea oso zabala zen.

• **Euskararen inpresioa?**

• Nik ez nuen ezer ulertzen. Garai hartan jende gehienak euskeraz egiten zuen, eta ni isilik egoten nintzen.

• **Zer da Aretxabaleatik gehien gustetan zaizuna?**

• Dena oso ondo dago. Ni etorri nintzeanean, Atxabalta baserri beteta zegoen. Baserrietara kotxez joateko, kaminoak oso txarrak ziren edo bestela ez zeuden. Orain berriz kamino gehienak oso ondo daude. Niri Atxabalta asko gustetan zait.

• **Ze alde dago zuk ezagututako Aretxabaleta eta oraingoaren artean?**

• Lehen baserri ugari eta bizilagun gutxi zegoen. Orain gezurra ematen du, 38 urtetan horrelako handia egin dela pentsatzeak.

• **Zeure burua Atxabaltartzat dauka-zu?**

• Bai. Ni orain ez nintzateke Atxabaltatik inora joango. Loteria tokatu edo jubilatuko banintz ere.

• **Anekdotarik?**

• Ni jaio nintzeanean aita oso gaisorik zegoen. Hala ere, aitapontekoek jaio nintzen eguneko patroiaren izena jarri zidaten: Bitoriano. Baina amaren lehengusuari ez ei zitzaion gustatu eta...: "zergatik ez diozue aita-zen izena jarri, jakinean hain txarto dagoela? Gaurtik aurrera Jesus deitu behar zaio eta ez Bitoriano". Eta ordutik beti deitu didate Jesus eta horrela geratu da.

Aurten ere urtero moduan, Otala- zelaiko kross herrikoia izango dugu Maiatzaren 10ean Urkulun. Baina aurten proba honek Gipuzkoako Herri krosseko 1.go CHALLENGERako puntuatuko du (proba hau Federazio eta Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatuta dago, ez federatuentzako).

Kross honetako antolatuzaileak Almen-U.D.A kirol elkarteak izango dira, Udalaren laguntzaz. Euren asmoa Otala-zelaiko krossak lehen zuen fama lortzea da. " *Aurten 14. urtea da, lehenengo urteetan 100-120 korrikalarik hartzen zuten parte, baina*



■ **Jasone Diaz de Gereño** eskoriatzarra, Espainiako selekziorako deitu dute, Joku Olinpikoetara joateko. Jasonek orain hiru hilabete pasatu beharko ditu Madrilen, Joaquin Blume erresidentzian. Denbora horretan 17 partidu jokatuko dituzte, eta azkenerarte ez da inor kanpoan geratuko.

Otala zelaiko krossa, indartuta

azkenengo urteetan 30 pertsonak bakarrik". Hau ikusita antolatuzaileak korrikalariak animetako asmotan sari bikainak jarri dituzte. " *Irabaziko duten korrikalariendako diru gehiago jarri dugu eta Astore kirol jantzi markak partehartzaile guztiei lasterketako kamiseta bat emango die.. Krossa*

bukatutakoan, partehartzaileen artean sari batzuk zozketatuko dira, besteak beste, Matikun eta Arientzako sagardotegian aforia. Eta Krossak duen errekorra gainditzen duenarentzat 25.000 pztza".

Egun berean goizeko 10:30etatik hasita eskolarteko kirola egiten duten haurrendako, (Almen, Kur-

tzebarri eta Luis Eceiza) lasterketak egongo dira. " *Benjaminak 400metro, Alebinak 600metro eta Infantilak 1000metro.*

Guzti horrekin antolatuzaileak jende ugari elkartzeko asmoa dauka. " *Ea korrikalariak animetan diren eta Kross Herriko honi denon artean bultzakada bat ematen diogun"*

■ Apirilaren 21etik 24erarte, esku pilotak egiten ikasteko ikastaroak ematen hasi da Aretxabaletako Udal kultura batzordeak antolatuta. Ikastaro hauek debalde dira.

URRETXO

Pinturak, papelak, moketak.

Gorbea 2
Tfnoa: 79 04 16
ARETXABALETA

ohialak

Gorbea, 4
Tfnoa: 79 87 36

ARETXABALETA



BRIKO - LAN

SANTAKURTZ KALEA,4
TFNOA: 79 68 58
2005 ARETXABALETA



Azken egunetan Musika Banda denon ahoetan dabil. Barriro ere ikusiko eta entzungo dugun itxaropena berpiztu dute. Dena dela Atxabaltan betidanik egon da musikarako zaletasuna

eta oraindiko ere askoren akorduan egongo da 1951. urteko Azaroan, Santa Zezilia eguna, goizeko 7retan Atxabaltako Bandak lehenengo aldiz emandako pasakailea.

Guzti honen gainean

banda barria sortzearen inguruan, aurtengo Azaroko alean gauza gehiago kontatuko dira. Bandari buruzko liburuxka bat egiteko asmoa dago.

Argazki hau 1960.

urtearen inguruan ataratakoa da, eta bertan agertzen direnak: Ezkerretik hasita (goiko lerroan): Felix Bañares, Manolo, Pedro Igartua, Vicente Igartua, Migel Uribetxebarria, Benito Rodríguez, eta Jabier Zabala. (Erdiko lerroan): Jose Ignacio Iturbe, Roberto Urreta, Josemari Guridi, Paco García, Paco Pérez, Luis Eraña, Hilario Etxenagusia, Justo Bartolomé. Eserita: Jabier Urreta, Ricardo garro, Pablo Pérez, Jesús San Martín, Demetrio Iriarte (zuzendaria), Angel Gaztañaga, Urci Velasco. Mutikoak: Koldo Iriarte eta Etxenagusia.

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

- Asmetan dutenen artean Everest espedizioko jertse bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Ze baserritan dago argazkian agertzen den armarría?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Galartzako elizostean.)



Aurreko lehiaketaren irabazlea ARANTZAZU ELKORO izan da. Zorionak!

Erantzuna:

• Izen-abizenak:

• Helbidea:

• Tfnoa:

AMANTALAZ



Oraingoan sukaldaria: Eduardo Altube

Baba baltz-nahastura
(errebuelta)

Lau lagunendako osagaiak:

- Kilo bat baba baltz
- 150 gr. urdaiazpiko
- 4 berakatz berde
- 5 arraultz

Zelan egin:

Baba baltzak karandu. Olio, gatz apur bat, urdaiazpiko eta berakatz dituen zartagin batean ipini.

Bestetik, arraultzak ontzi batean eragin, eta gero bere puntuan dauden baba baltzak zartaginera gaineratu.

Saiatu zaitezte nahastura ez dadin sikatu!!

TXISTEAK

Patroiaren heriotza

Zapatari bi elkartu die kalien.

- Datorren astien bahator zapatarixon bazkarira?

- Zapatarixon bazkarira? Ze juau ba datorren astien?

- Eztakik ala? San Eustakio, gizona, San Eustakio gure patroia.

- San Eustakio gure patroia? Bai zera; oin San Krispin dok, neuk dakidanez behintzet.

- Orduren bestia hil eingo zuan.

BAZKIDE FITXA

IZENA:

HELBIDEA:

KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA:

KUTXA:

TELEFONOA:

Aretxagazetako bazkide izan gura baduzu, bialdu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Kanpotarrei korreoz bialduko zaie.

KOMIKIA



Miky eta Paul

ASTE SANTU HONETAN DENA IZAN DA URRI DIRUA URRI, ERREGAIA URRI ETA JENDEA ERE URRI...

BAI ETA URTERO BEZALA EGURALDI-ONA ERE URRI!!!

25 ZAPATUA

• Zinea: "Terminator 2" filmea, gaueko 10etan.

• Zikloturista taldearen ibilaldia: Aretxabaleta - Udana - Zumarraga - Aizpurutxo - Udana - Aretxabaleta (70Km).

• Futbol partidua: U.D.A - C.D. Aloña Mendi.

26 DOMEKA

• Murruxiko mendizale elkartearen irteera: Gipuzkoako itzulia Hondarrabi - Donostia.



• Zinea: 4,30etan eta 7etan "Terminator 2" filmea. Pelikula honekin bukatuko dira aurtengo emanaldiak, Urriak arte.



• Zaraia mendi taldearen eskutik gazteen akanpada.



3 DOMEKA

• Zikloturisten irteera: Aretxabaleta - Deba - Mutriku - Aretxabaleta (85 Km).

4 ASTELEHENA

• Igeri ikastaroak kopuru mugatuak. Apunta zaitetz: (79 64 61).

• Antzerki hilabetea hasi behar da udal-eteak eta gaztetxeak antolatuta.

Hilabete honen barruan mimo ikastaro bat egongo da Peter Roberts maisuarekin. Ikastaroak maitzak 9, 10, 16 eta 17an izango dira.

Apuntatzea nahi duenak kultur-etxean edo gaztetxean.

ARETXAZOKA

Etxebizitzak

• Herriaren erdigunean kokatutako etxea salgai. D e i t u : 7 9 6 4 9 3 telefonora.

• Garaje bat salgai, Andra mari auzunean. Tlfnoa: 79 47 62

• Garaje bat salgai Otolara, 11 kalean. Tfnoa: 79 47 62

Lana

• Atxabaltan neska bat behar da umeak zaintzeko. Tfnoa: 790476

• Etxeko lanak egin eat ordu batzuetan ume bat azintzeko neska euskaldun bat behar da. Intersatuak deitu: 79 65 13 telefonora.

Denetik

• Aumentozko betaurreko batzuk galdu zaizkit funda eta guzti. Norbaitek topetan baditu, mesedez deitu 79 73 26 telefonora edo bialdu Otolara, 15era.

• Eski alpino egiteko bota pare bat salgai. Tfnoa: 76 38 72

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

GARAGE
OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN


MANTEKA
ANAIK

BASABE
JATETXEA
 Menu eta afariak
 Industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 79 31 84

GARAGE
" EDER "
 Karrozeria
 mekanikoa
 IBARRA S/N
 Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
 BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA
 ALTZARIAK
 DISENUA
 APAINKETA

 **EROSKI**
 Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
 DURANA ETA ARALAR KALEAN
 Tfno: 79 16 05

 **BITXITEGIA**
MIREN & ZURINE
 BITXIEN DISEINUA
 Otalra kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57
ARETXABALETA

NERIAN
 Loradenda
 Otalora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66

LANDETA

 Durana, 22
 Tfnoa: 79 57 29

OILASKO - URDAITEGI - IZOZKIAK
IÑAKI
 Gipuzkoako Plaza, 1 Tfnoa: 77 02 99
ARETXABALETA

Gozkitegi, S.L.

GOZODENDA
 eta **IZOZKIDENDA**
 Otalora Kalea, 4
 Tfnoa: 77 13 57

IBARRA ESTANKOA
 TABAKO, IKAS MATERIALA ETA ZERGA
 IMPRIMAKIEN SALMENTA
 Bizkaia, 3
 Tfnoa: 79 23 77
ARETXABALETA


KIKOR
 AKEITEGIA
 MITARTE, 3
 Tfnoa: 77 10 81
ARETXABALETA

ARETXABALETAKO

GAZTETXEA. A. G. A



Lan Kide Aurrezkiaren Superlibreta



Lan Kide Aurrezkiaren Libreta berria aurkezten dizugu: %7rainoko interesarekin ematen duen Superlibreta.

Lan Kide Aurrezkiak da ezaugarri hauekin osaturiko libreta plazaratzen duen Euskal Herriko lehen Kutxa. Gaurdanik, aurrezki-mota guztiak ez dira berdinak. Lan Kide Aurrezkiak aldatu egin bait du interesa aurrezki-libretan. Superlibretarekin.

200.000 pta.ko eguneroko saldotik hasita, lehen 100.000 pta.k %0,10ean.

U.T.B.ko adibideak:

250.000 pta.rako %4,33a.
500.000 pta.rako %5,74a.
1.000.000 pta.rako %6,45a.
5.000.000 pta.rako %7,01a.

**Euskadiko
Kutxa**

